



EVA "Partenariat pour l'évaluation de compétences" Proiektuaren lehen emaitzak

Pasa den ekainaren 12 eta 13an EVA proiektuari buruzko Nazioz Harandiko Bigarren Topaketa izan zen Bukaresten. Topaketa hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sustatu zuen eta bertan prestakuntza, ebaluazio eta aholkularitzaren arloan nabarmentzen diren Europako bost herrialdeetako hainbat erakunde publikok nahiz pribatuk eta enpresek hartu zuten parte. Proiektua, Fondo Formación Euskadik koordinatua eta Europako Batzordeak ere finantzatua LEONARDO II Programaren markoan, 2003 eta 2004. urteetan zehar garatuko da, koordinatuta, Euskal Autonomia Erkidegoan, Austrian, Frantzia, Italian eta Errumanian.

Gaitasunak ebaluatu eta egiaztatzeko bide berriak

- Hezkuntza- eta produkzio-sistemetan maiz elkarren artean ia loturarik ez duten sistemak ezarri ohi dira gaitasunak ebaluatu, aintzat hartu eta egiaztatzeko. Politika nazionalak arlo honetan bateratasuna bilatzen dute, nahiz eta lortutako emaitzak aldakorak diren. Oro har, hezkuntza-sistemak produkzio-sistemen logika eta beharretara hurbiltzen saiatzen dira, baina azken hauek euren kabuz dihardute oraindik ere.
- Hezkuntza-sistemek tresna eta metodologia ugari garatu dituzte ezagutzak baloratu eta egiaztatzeko. Lan-merkatuan gertatu ohi dena da, behin lanpostura heltzean, ezagutza horiek enpresarako beharrezkoak diren gaitasun bihurtzen direla. Egun, hezkuntza-sistemak igortzen dituen tituluak dira ezagutzak formalki aitortzeko bide nagusia. Hala ere, bide hau oso murriztailea da, ikaskuntza formalak baino ez baititu agertzen.
- Produkzio-sisteman batik bat lanbide-gaitasunak hartzen dira kontutan, alegia, pertsonaren ezagutzak, trebetasunak eta gaitasunak lanpostuan nola aplikatu daitezkeen. Batzuetan gaitasun horiek baloratzeko eta egiaztatzeko tresna propioak sortzen ditu. Hala ere, hain zehatzak direnez, tresna hauek sektore, enpresa-talde edota eremu geografiko horietan bakarrik erabil daitezke.
- Lanbide-esperientziatik edo beste bide batzuetatik lortutako gaitasunak ez ikusteak eta ez onartzeak lanbide-ikasketen garapena zaildu egiten du. Langileek prestakuntzarekiko izan dezaketen motibazioa gutxitzen du eta ikasteko prozesuaren garapena oztopatzen.

EVA proiektuaren helburuak prestakuntzaren gardentasuna hobetzea eta ikastaldia bizitza osoan zehar garatzea dira. Europako herrialdeen arteko lankidetzari esker, hurrengo bi urteotan proiektu honen bidez gaitasunak definitzeko sistematika eta gaitasun horiek ebaluatzeko eta egiaztatzeko metodologia garatu eta probatuko dira.



Nazioz harandiko lankidetzazabala eta askotarikoa.

Helburu hau gogoan, proiektua Leonardo da Vinci II Lanbide Prestakuntzarako Europako Programak eta bertan parte hartzen duten erakundeek aldi berean finantzatu dute.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila buru dela eta FONDO FORMACIÓN EUSKADI, SLLk koordinatuta, mota askotako erakundeek hartu dute parte proiektuan; hala nola, agente ekonomikoak (Bizkaiko Metalgintza Enpresen Federazioa), prestakuntza-erakundeak (Mendizabala Institutua, Makina Erremintaren Institutua), erakunde publikoak (LHK eskaintzen dituen Gaitasunak eta Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentzia eta Heziketaren Euskal Erakundea) eta aholkularitza-erakundeak (Global Desarrollo, SL).

Nazioz harandi, honakoek hartu dute parte proiektuan: Centre Academique de Formation Continue (CAFOC), prestakuntza- eta aholkularitza-jarduerak garatzeaz arduratzen den interes publikoko Frantziako taldeak; Institutul dei Stiinte ale Educatei (ISE), hezkuntza-erreforma garatzeaz arduratzen den Errumaniako Hezkuntza Ministerioaren ikerketa-institutuak; Istituto per lo Sviluppo della Formazione Professionale dei Lavoratori (ISFOL), Italian lanbide-prestakuntza eta lan-politikak sustatzeko ikerketa-erakunde publikoak; eta Berufsforderungsinstitut (BFI), Austrian prestakuntzaren eremuan aitzindaria den erakundeak.

Proiektuaren faseak

EVA proiektuak honako faseak ditu:

1. Fasea. Proiektua nola antolatu zehaztu da eta lan-planak berrikusi eta eraginkor bihurtu dira. Fase honen amaieran Zuzendaritza Batzordea eratu da eta Lan Plana eta Proiektuaren Kalitate eta Hedapen Plana onetsi dira.

2. Fasea. Ebaluzio-eredua eta tresnak sortu dira. Fase hau datorren abenduan amaituko da eta honen bidez gaitasunak zehazteko metodologia eta horiek ebaluatu eta -hala badagokio- egiaztatzeke eredua sortu nahi dira.

3. Fasea. Honen helburua gaitasunak ebaluatu eta egiaztatzeke eredua probatu eta proiektuaren emaitzak aditzera ematea da.

Nazioz Harandiko 2. Topaketaren emaitzak

Ekainaren 12 eta 13an Nazioz Harandiko Bigarren Topaketa egin zuten Bukaresten (Errumania) proiektuko kide guztiek. Bertan enpresetan egindako ikerketen emaitzak aurkeztu zituzten eta hurrengo hiletan egin beharreko jardueren berri eman zuten.

Onetsitako lan-egutegiaren arabera, kideek enpresek zein gaitasun baloratzen dituzten identifikatu eta zehazteke ikerketaren emaitzak aurkeztu zituzten topaketa honetan. Ikerketa hau 2003ko urtarriletik martxora bitartean garatu



zen parte hartzen duten herrialde horietako 4 enpresetan, giza-baliabideak gaitasunen arabera kudeatzen aitzindari direlako hautatuak.

Proiektuan lehenengo lana, besteak beste, gaitasuna, ebaluazioa edo egiaztatpena moduko hainbat kontzeptu argitzen lagunduko digun kontzeptu-eremu bera ezartzea izan da. Eredua hartuta eta Guy LeBoterfek emandako gaitasunaren definizioan oinarrituz, kideek ikerketa egin dute hainbat enpresatan, bi helbururekin: batetik, enpresei "beharrezko gaitasunak formalizatu eta zehazten lagun dien" sistematika eratzea; eta, bestetik, gaitasunaren definizioa prestatzea, ondoren horiek ebaluatu eta egiaztatzeko tresnak sortzea errazagoa izan dadin.

Proiektuak honako gaitasunei eman die lehentasuna:

Kalitatezko erremintak erabiltzeko gai izatea, enpresaren etengabeko hobekuntza-prozesuan lagun dezan.

Enpresako lan-arriskuak eta hauen iturri nagusiak identifikatzeko gai izatea, honela babes-neurri egokiak hartu ahal izango baititu.

Prozesuari buruz hitzez, idatziz nahiz irudien bidez emandako jarraibideak identifikatzeko gai izatea, dagozkion zereginak behar bezala gara ditzan.

Lanpostua antolatu eta prestatzeko gai izatea, soldadura-prozesua baldintza egokienetan gara dadin.

Makina beharrezko lehengaiak hornitzeko gai izatea, produkzioan kalite- eta segurtasun-baldintzak berma daitezen.

Topaketan gehien eztabaidatu den alderdietako bat gaitasun hauek eraginkorrago bihurtzeko modua aurkitu beharra izan da, honi esker horiek ebaluatzeko tresna fidagarri, baliagarri eta erabilgarriak aurki ahal izango baitira. Ildo honi jarraiki, proiektuaren arabera, beharrezkoa da enpresekin gaitasun bakoitzerako betetze- eta "performance"-adierazleak ezartzea eta, aldi berean, hezkuntzak egindako ekarpen nagusiak biltzea.

Gaitasunak eraginkorrago bihurtzeko prozesu honi esker errazagoa izango da gaitasunak zehazteko metodologia prestatzea, prozesua elkarrekiko atzeraelikadura etengabea oinarritzen baita.

Hurrengo urratsak

Gaitasun ezberdinei dagozkien erreferenteak sortu ondoren, hautatu diren gaitasunak ebaluatzeko eta, hala badagokio, egiaztatzeko tresnak prestatuko dira enpresekin elkarlanean.

Tresna hauek 2004ko lehen sei hilekoan zehar egingo diren ekintza pilotuetan probatuko dira.